

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Rasputin eta aspirina

SAN PETERSBURGO, 1905. Errusiako tsarraren seme bakar Alexis Nikolaievichen hemofilia larritzen ari zela eta, tsarinak Grigori Rasputin ekarri arazi zuen Romanov sendiaren jauregira. Anna Viruboba lagunak gomendatu zion tsarraren emazteari Siberiako mistikoaren sendatzeko ahalmenaz baliatzea. Oinordeko gaztearen osasunak berehala egin zuen hobera. Eta Rasputin Romanov dinastiaren azken urteetan eragin handiko pertsona bilakatu zen.

Ikerlari batzuk uste izan dute hipnosia erabiliz lortu zuela Rasputinek Alexis Nikolaievichen osasun egoera hobetzea. Baina “mirakuluaren” arrazoia askoz sinpleagoa da. Rasputinek ez zuen ezertxo ere egin. Sendatzeko bide bakarra otoitza zela uste zuen; horregatik, ez zion haurrari inolako sendagairik eman, eta gorteko medikuen ordu-arteko tratamenduak ere eten zituen.

Medikuek droga berri bat eman zioten printzeari: azido azetilsalizilikoa, hau da, aspirina. Berez, sahatsaren azalaren, hostoen eta izerdiaren onurak aspaldi ezagutzen ziren. K.o. I. mendean sukarra eta oinazea leuntzeko erabiltzen zuten dagoeneko. Baina azido salizilikoa azetilazioa ez zen 1853a arte lortu; Gerhard kimikari gazteak egun erabiltzen dugun aspirina sortu zuen. Gero, Felix Hoffmann-ek azetilazioa maila industrialean egitea lortu zuen, eta 1899 otsailaren 10ean enpresa aleman batek merkaturatu zuen.

Aspirinak odolaren koagulazio prozesua geldotzen du eta, ondorioz, kalte egiten die hemofiliakoei. Huraxe izan zen Rasputinen “miraku-



Lerro hauen gainean, Grigori Rasputin. Eskuinean, azido azetilsaliziliko pote zaharrenetakoak, Rasputin hil zuten garaikoak.



lua”: ez zekien azido azetilsalizilikoak printzeari kalte egiten zionik —egun, aspirinaren mekanismoak ez dira oraindik ondo ezagutzen—, baina medikuen esaneiz muzin eginez, nahi gabe, mesede handia egin zion tsarraren semeari.

Zalantzarik ez da 48 urte bete baino hamar egun lehenago Rasputin osasuntsu zegoela. 1916ko abenduaren 31n, Felix Yusupov printzeak eta Dmitri Pavlovich Romanov tsarraren lehengusuak siberiarra hiltzeko ahaleginak egin zituzten, zerbitzu sekretu britainiarren laguntzarekin. Lehenik zianuroa bota zioten txokolatean, baina pozoiak ez zion esperotako kalterik egin. Horregatik Yusupov printzeak tiro egin zion. Baina Rasputinek bizirik jarraitzen zuen. Orduan buruan kolpe bate eman eta Neva ibaira bota zuten. Kolpeak ere ez zuen akabatu; gerora egindako ikerketek frogatu zuten itota hil zela. Ederki kosta zitzairen bizi guztian aspirina bat bera ere hartu ez zuen gizona garbitzea. ■

ARRASTOAK



JEANNE D'ARC en ustezko arrastoak momia egiptoar batenak dira. Hori argitaratu berri du, behintzat, zientzialari talde batek *Nature* aldizkari britainiarrean. Arrasto horiek XIX. mendean aurkitu zituzten, hain zuzen, historialari frantziarrek Jeanne D'Arc mito nazional bihurtu zuten garaian. Tourseko artzapezpikutzaren egoitzan daude gordeta ordutik, baina eliza katolikoak ez ditu inoiz erlikiatzat hartu ofizialki. Berriki egindako azterketak agerian utzi du Tourseko arrastoak

faraoien garaiko momia egiptoar batenak direla. Eta agerian gelditu da fededunek mende eta erdian gurtu dituzten erlikiak ez direla 1431n erreta hil zuten Jeanne D'arc-enak.

Gainera, aste gutxian, Frantzia giza arrastoen inguruan azaleratzen den bigarren gezurra da hau. izan ere Louvre museoko arduradunek martxoan jakinarazi zuten ustez Ramses II.aren arrastoak gordetzen zituzten kanopeak olio dutela barruan.